

## **4/2014 FORU ARAUA, ekainaren 11koa, erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatueta biltegitzearen gaineko zergari buruzkoa (BAO Ekainaren 17koa)**

Jakinazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2014ko ekainaren 11ko Osoko Bilkuran onartu dutela 4/2014 Foru Araua, ekainaren 11koa, erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatueta biltegitzearen gaineko zergari buruzkoa, eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

### **HITZAURREA**

2014ko apirilaren 21eko 7/2014 Legearen bidez, Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoak Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna aldatzeko 2014ko urtarrilaren 16an hartu zuen erabakia onetsi da.

Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoak hartutako erabaki horren edukiak -Batzar Nagusiek 2014ko martxoaren 26ko 1/2014 Foru Arauaren bidez berretsi dute erabaki hori, eta aipatutako legeak aldarrikatu du- berekin ekarri du tributu berriak (orain arte gure tributu-sisteman ez zeudenak) ituntzea, zegoeneko itunduta zeuden beste batzuen ituntze-baldintzak aldatzeaz gainera.

Itundu berri diren tributueta bat da Erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatueta biltegitzearen gaineko Zerga, eta, indarrean dagoen Ekonomia Ituneko 23 quinquies artikuluan xedatutakoaren arabera, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko. Hori dela eta, xedapen hau eman behar da, zerga berriaren araueta gure ordenamenduan sartzeko, Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak jasota.

Zerga hau Jasangarritasun energetikorako neurri fiskalei buruzko 2012ko abenduaren 27ko 15/2012 Legearen bidez sortu zen, energia elektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatueta biltegitzeak eragindako ingurumenaren arloko kostuak barneratzeko. Zuzeneko tributu bat da, izaera erreala duena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betetzeko, memoria ekonomikoari buruzko txostena eta genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena doaz foru arau honekin batera.

### **1. artikulua. Izaera.**

Erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatueta biltegitzearen gaineko Zerga zuzeneko tributu bat da, izaera erreala duena, eta foru arau honetako 4. artikuluan definitutako jarduerak kargatzen ditu. Jarduera horiek haren zerga-egitatea osatzen dute.

### **2. artikulua. Aplikatu beharreko arauak.**

1. Ekonomia Ituneko 23 quinquies artikuluan xedatutakoaren arabera, zerga hau foru arau honetan eta araua garatzen duten xedapenetan xedatutakoa kontuan hartuta galdutako da.

2. Foru arau honetan xedatutakoa gorabehera, indarrean jarraituko du barne-ordenamenduaren parte bihurtu diren nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan xedatutakoak.

### **3. artikulua. Zergaren ordainarazpena.**

Zergaren ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak biltegitratzen diren instalazioak Bizkaiko Lurralde Historikoa daudenean.

### **4. artikulua. Zerga-egitatea.**

Instalazio zentralizatu batean erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak biltegitratzeko jarduera izango da zerga-egitatea.

Zerga honi dagokionez, erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak aldi baterako nahiz behin betiko ibilgetzeko jarduera oro joko da biltegitratzetzat, haien forma kontuan hartu gabe. Instalazio zentralizatuak, ordea, hainbat instalaziotatik edo jatorritatik ekarritako materialak biltegitratzea ditzaketenak izango dira.

### **5. artikulua. Salbuespenak.**

Jarduera medikoetako edo zientifikoetako hondakin erradiaktiboen biltegitratzea zerga horretatik libre izango da; halaber egongo dira salbuetsita araudi nuklearraren mende ez dauden instalazio industrialetako ezohiko gertaeretako hondakin erradioaktiboak, bai Segurtasun Nuklearreko Batzordeak halakotzat jo dituenak, bai instalazio horietan hauteman eta kapsulatutako aktibitate altuko iturri erradioaktiboak eta iturri zurtzak kontrolatzeari buruzko 229/2006 Errege Dekretuaren, otsailaren 24koaren, 11.2 artikulua aipatzen dituen hitzarmenen markoan kudeatzen diren hondakinak.

### **6. artikulua. Zergadunak.**

Zerga honen zergadun izango dira foru arau honetako 4. artikuluan adierazitako jarduerak egiten diren instalazioen titular diren pertsona fisiko edo juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 34. artikuluko 3. zenbakian aipatzen diren erakundeak.

### **7. artikulua. Zergaldia eta zergaren sortzapena.**

1. Zergaldia urte naturalarekin bat etorriko da, zergadunak foru arau honetako 4. artikuluetan adierazitako zerga-egitatea osatzen duten jarduerak gauzatzeari uzten dionean izan ezik. Kasu horretan, jarduera uzten duenean amaituko da zergaldia.
2. Zergaldiaren azken egunean sortuko da zerga.

### **8. artikulua. Zerga-oinarria.**

1. Erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatueta biltegitratzearen gaineko Zergaren oinarria hau izango da:
  - a) Biltegitratutako erregai nuklearrean agortuak duen metal astunaren pisuak zergaldiaren amaieran eta hasieran dituen balioen arteko aldea, kilogramotan adierazia.
  - b) Erregai nuklear agortuaz bestelako aktibitate altuko hondakin erradiaktiboen nahiz aktibitate ertaineko eta bizitza luzeko hondakin erradiaktiboen bolumenak zergaldiaren amaieran eta hasieran dituen balioen arteko aldea, metro kubikotan adierazia.
  - c) Zergaldian instalazioan biltegitratutako b) letran jasotakoez bestelako aktibitate ertaineko hondakin erradiaktiboen nahiz aktibitate baxuko edo oso baxuko hondakin erradiaktiboen bolumena, metro kubikotan adierazia.

- Artikulu honetan adierazitako zerga-oinarria zerga honen zerga-egitate diren jarduerak gauzaten dituzten instalazio guztietan aplikatuko da.

**9. artikulua. Aktibitate ertaineko, baxuko eta oso baxuko hondakinen biltegitratze zentralizatuaren likidazio-oinarria.**

- Foru arau honetako 8. artikuluko 1. zenbakiko c) letran adierazitako aktibitate ertaineko, baxuko eta oso baxuko hondakinen biltegitratze zentralizatuan likidazio-oinarria lortzeko, zerga-oinarriari K murrizketa-koefiziente biderkatzailea aplikatuko zaio, honako formula honi jarraikiz:

$$LO = K \times ZO$$

Azalpena:

LO: Likidazio-oinarria.

ZO: Zerga-oinarria.

- K koefizientea lortzeko, honako formula hau aplikatuko da:

$$K = \frac{VNC + VC \times fC + VSI \times fSI + VLI \times fLI + VMX \times fMX}{VNC + VC + VSI + VLI + VMX}$$

Azalpena:

VNC: Behin betiko biltegitratzeko ekarritako hondakin ez trinkogarrien eta ez errausgarrien bolumena.

VC: Behin betiko biltegitratzeko ekarritako hondakin trinkogarrien bolumena.

fC: Bolumenaren trinkotze bidezko txikitze-faktorea.

VSI: Behin betiko biltegitratu aurretik errausketa-tratamendua jasotzen duten hondakin solidoen bolumena.

fSI: Hondakin solidoen bolumenaren errausketa bidezko txikitze-faktorea.

VLI: Behin betiko biltegitratu aurretik errausketa-tratamendua jasotzen duten hondakin likidoen bolumena.

fLI: Hondakin likidoen bolumenaren errausketa bidezko txikitze-faktorea.

VMX: Behin betiko biltegitratu aurretik trinkotze- eta errausketa-tratamendu mistoa jasotzen duten hondakinen bolumena.

fMX: Bolumenaren trinkotze- eta errausketa-tratamendu mistoaren bidezko txikitze-faktorea.

- Txikitze-faktoreek balio hauek hartuko dituzte:

Faktorea	Balioa
fC	1
	2,6
fSI	1
	12,1

fLI	1
	15,3
fMX	1
	7,8

#### **10. artikulua. Zerga-tasa eta zerga-kuota.**

Zerga-kuota zerga-oinarriari edo aurreko 9. artikuluan ezarritakoari jarraikiz kalkulaturako likidazio-oinarriari zerga-tasa hauek aplikatzearen emaitza izango da:

- a) Foru arau honetako 8. artikuluko 1. zenbakiko a) letran aipatzen den erregai agortuaren biltegiatzeari dagokionez, metal astun kilogramoko 70 eurokoa izango da karga-tasa.
- b) Foru arau honetako 8. artikuluko 1. zenbakiko b) letran aipatzen diren hondakin erradioaktiboen biltegiatzeari dagokionez, zerga-tasa 30.000 eurokoa izango da hondakin erradiaktiboen metro kubiko bakoitzeko.
- c) Foru arau honetako 8. artikuluko 1. zenbakiko c) letran aipatzen diren hondakin erradioaktiboen biltegiatzeari dagokionez:
  1. Aktibitate baxuko eta ertaineko hondakin erradioaktiboen kasuan, zerga-tasa 10.000 eurokoa izango da metro kubiko bakoitzeko.
  2. Aktibitate oso baxuko hondakin erradioaktiboen kasuan, zerga-tasa 2.000 eurokoa izango da metro kubiko bakoitzeko.

#### **11. artikulua. Likidazioa eta ordainketa.**

1. Zergadunek zergaren autolikidazioa egin eta kuota ordaindu beharko dute, zerga sortu eta hurrengo 25 egun naturaleko epean, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen dituen arauen eta ereduaren arabera.
2. Apirilko, uztailko eta urriko lehen 25 egun naturaletan, foru arau honetako 4. artikuluan azaldutako zerga-egitatea gauzatzen duten zergadunek abian den zergaldiari dagokion likidazioaren konturako ordainketa zatikatua egin beharko dute, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen dituen arauen eta ereduaren arabera.

Ordainketa zatikatuen zenbatekoa kalkulatzeko, ordainketa bakoitza egiteko epearen hasieraren aurreko hiruhileko naturalari dagokion zerga-oinarria definitzen duten magnitudeak hartuko dira aintzat, eta 10. artikuluan adierazitako zerga-tasa aplikatuko da.

#### **12. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.**

Zerga honi dagozkion arau-haustek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan ezarritakoaren arabera sailkatuko eta zehatuko dira.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

#### **Bakarra. Arauak indargabetzea.**

Indargabetuta geratzen dira foru arau honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

## **AZKEN XEDAPENAK**

### **Lehenengoa.**

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean foru arau hau, eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

### **Bigarrena.**

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emango dituzte.

Bilbon, 2014ko ekainaren 11n.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,

JON ANDONI ATUTXA SAINZ

Batzar Nagusietako Lehendakariak,

ANA MADARIAGA UGARTE